

Lur azpiko memoria

# Txabolapea

Memoria bajo tierra



Legutio Justiziamenditik. Atzean Txabolapeako pinudia.

Legutio desde Justiziamendi. Al fondo el pinar de Txabolapea-

Txabolapeako pinudia posizio estrategikoa izan zen Legutioko Batailan zehar. Haren konkistak Legution gotortutako indar nazionalak inguratzea eta isolatzea ahalbidetzen zuen. 1936ko abenduaren 1ean errepublikarrek pinudia bereganatzea lortu zuten, eta horri esker, posible izan zen Gasteiztik Legutiora zetorren bando nazionalako konboi bat geldiaraztea. Zoritxarrez, hurrengo egunean, kokaleku hau galdu eta ezin izan zuten egun hartako konboiaren aurrerabidea eten. Egun hartan baja ugari izan zituen Euskal Ejerzitoak. Ezin izan ziren haien gorpuetako asko berreskuratu eta beraien memoria pinudi honetan lurperatuta geratu zen.

El pinar de Txabolapea fue una estratégica posición durante la Batalla de Villarreal, cuya conquista permitía el aislamiento de las fuerzas nacionales atrincheradas en Legutio. Su toma el 1 de diciembre de 1936 permitió la retirada de un convoy de refuerzo nacional que desde Vitoria se dirigía a Legutio. Pero tras la pérdida, un día más tarde, de este estratégico enclave no pudo evitar el avance de otro convoy. Aquella jornada ese saldo con numerosas bajas y muchos de los cuerpos jamás serían recuperados, quedando su memoria enterrada en este pinar.

## Memoriaren deshobiratzea Desenterrando la memoria

Bi izan dira, momentuz, pinudi honetan egindako deshobiratzeak. Kasu batean eta bestean ezinezkoa izan da gorpua identifikatzea eta gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren kolunbarioan ehortzi ziren 2017an eta 2018an.

Hasta el momento han sido 2 las exhumaciones realizadas en este pinar. No fue posible la identificación de ninguno de los individuos y sus restos fueron depositados en el Columbario de la Dignidad de Elgoibar en 2017 y 2018 respectivamente.



**Hilotzak hobitik ateratzen, duintasunak berreskuratzen**  
Exhumando fosas, recuperando dignidades

Deshobiratzeek gerran desagertutako pertsonen senideei duintasuna itzultzea ahalbidetzen dute. Horren adibide ona da Tomas Rubin gudari bilbotarrena. Legutioko Batailan zauritua izan ondoren Zornotzako ospitalera eraman bazuten ere 1936ko abenduaren 2an hil zen. Familiakoek ez zekiten non izan zen ehortzia. 2022an Bilboko Begoñako hilerriko hobian haren gorpuzkiak berreskuratu zituzten. Egindako proba genetikoei esker hura identifikatu eta oinordeei bere gorpuzkiak bueltatzea posible izan zen.

### Txabolapea 1

### Txabolapea 2

2013

◀ Aurkikuntza data  
Fecha de localización ▶

2017

Inguruan paseatzen zebiltzan bi gaztek aurkitu zuten. Sakonera txikiko ehorzketa zen eta hezurdura hurbileko zuhaitz baten sustraien artean aurkitu zen. Gorpua eskuineko saihets-aldearen gainean etzanda zegoen, hil zenean bezala, agian granada baten ezandaren ondorioz.

El hallazgo lo realizaron dos jóvenes que paseaban por la zona. Se trataba de un enterramiento superficial, donde se localizaron los restos óseos entre las raíces de un árbol próximo. El cuerpo estaba tendido sobre el costado derecho, como cuando murió, quizá a causa de la explosión de una granada.




Aranzadi Elkarteko bi kidek kartutxo-zorroaren material-hondarrak eta larruzatiak aurkitu zituzten giza hezurren hondakinekin lotuta, hemen aurrean duzuen hobian. Hezur-hondarrak, gainera, mugituta zeuden, distantzia txikira zegoen pinu baten sustraien hazkundearen ondorioz.

Dos integrantes de la Sociedad Aranzadi localizaron en esta fosa los restos de de cartuchería y cuero que suelen ir asociados a restos óseos humanos. Los restos óseos estaban además desplazados por el crecimiento de las raíces de un pino situado a escasa distancia.

2013 / 07 / 14

◀ Deshobiratze data  
Fecha de exhumación ▶

2017 / 03 / 25



Las exhumaciones de fosas permiten devolver la dignidad a los familiares de las personas desaparecidas en las guerras. Citamos como un ejemplo cercano el del gudari bilbaino Tomas Rubin que, tras caer herido en la Batalla de Villarreal, sería trasladado al hospital de Amorebieta, falleciendo el 2 de diciembre de 1936. Su familia nunca supo más de él hasta que sus restos fueron recuperados en 2022 en la fosa del cementerio de Begoña, en Bilbao. Pudieron ser identificados y entregados a sus descendientes gracias a las pruebas genéticas realizadas.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

araba álava  
foru aldundia diputación foral

Ayuntamiento de LEGUTIO  
LEGUTIOKO Udala



Aranzadiko lantaldea (Txabolapea 1)



Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan



Gorpuzkiak (Txabolapea 2)



Txabolapea 1eko deshobiratzean aurkitutako 2 pezetako txanpona (Aranzadi Zientzia Elkarte)

Moneda de 2 pesetas encontrada en la exhumación de Txabolapea 1 (Sociedad de Ciencias Aranzadi)